

Enpresetako planen deskarguak



Euskara batzordea hizkuntza politika zehazten bukatzen ari da. Prozedurak banan-banan aztertu ditu eta horietan hizkuntza irizpidea nola txertatu zehaztu du. Eskuliburua izango denaren zirriborroa ere prestatu dute eta gerora enpresako dokumentazioan nola txertatu behar den aztertuko dute.

EMUNeko teknikaria: Amaia Rodriguez
Koordinatzailea: Joxe Luix Agirretxe

hamabi-T

Euskalduntzen ari diren langileen jarraipena eta ebaluazioa egin da. Horrekin batera, lan poltsa euskalduna osatzeko datuak eta diagnostikoa eguneratzen ari dira. Halaber, aurrera begirako pausoak aztertzen ari dira.

EMUNeko teknikaria: Amaia Rodriguez
Planaren koordinatzailea: Iratxe Osés



Larrialdietarako proposamen bat landu da itzulpenez gain, bestelako normalizazio urratsak lantegian emateko. Segidan proposamen hau hainbat eragileri aurkeztea falta da, horiek oniritzia eman diezaioten. Itzulpen lanekin aurrera jarraitzen dute, formazioko hainbat modulu euskaratzen.

EMUNeko teknikaria: Xabier Apaolaza
Planaren koordinatzailea: Mikel Rojo

Diru laguntzak

Eusko Jaurlaritzak ebazpena kaleratu du

Entitate pribatuetan euskara sustatzeko planak martxan izateagatik Eusko Jaurlaritzak urtero diru laguntzak ematen ditu. Aurtengoak nola banatuko dituen esaten duen ebazpena ekainaren 26an argitaratu zuen, eta OLA planean dauden enpresek ere jasoko dute zati bat.

Buletin ofizialean eman dute banaketaren berri, eta internet bidez ikusi nahi baduzue, hemen [Ctrl+klik](#) egin:

[2007ko ebazpena](#)

Urtea bukatzerako, Eusko Jaurlaritzak entitate bakoitzari dagokion diruaren erdia (%50a) ordainduko dio. Gainontzeko erdia, diru laguntza justifikatzen denean banatuko dute, horretarako epe aldia zabaltzen denean.

Horren inguruan edozein zalantza izanez gero, dagokion euskara teknikariarengana jotzea besterik ez duzue, edo ondoko helbide elektronikora galdera bideratu:

uxune@emun.com

Beste enpresa bat OLA planean



Automation Products, S.A. Niessen Unit

Uztailean Irun aldean lan munduan euskara sustatzeko lanean ari diren eragileen (sindikatuena, zinegotzien eta Euskara Teknikarien) bisita izan zuten, "in situ" Euskara Plan bat zer den ezagutzeko. Topaketa oro har positiboki baloratu zen. Itzulpenak egiteko bekadunaren kontratazioa atzeratu egingo da, bekadun izan behar zuenak ezin duelako; atzerapen horri irtenbide bat ematen saiatuko dira Euskara Batzordean. Bukatu dira eskolak; AEK izan da eskolak eman dituenak. Irailean matrikulazio berria egiten ari dira, eta On Line ikasteko aukera ere zabalik utziko dute; horretarako, sistema hori nolakoa den azaltzera, pertsona bat etorriko da.

EMUNeko teknikaria: Xabier Apaolaza
Planaren koordinatzailea: Txus Alfonso



Uztaileko Euskara Batzordean Gestio Planaren betetze maila aztertu da. Betetze hau iazkoaren antzekoa izan da, ia erdia. Horren guztiaren deskargu bat ere prestatu da Kontseilu Errektorean emateko. Euskara Eskoletan bi talde aritu dira, bat behe urratsekoa eta bestea goikoa. Euskara planaren berri ematen duen Eldotz aldizkariaren lehen zenbakia banatu da uztaileko nominarekin batera.

EMUNeko teknikaria: Xabier Apaolaza
Planaren koordinatzailea: Ane Aldaraborda



Euskara batzordeak bilera egin du eta hamabostean behin egiten diren kartelak euskaratzeko sistema adostu du. Bitartean, bertan egiten diren errotulu eta publizitatearen bilketa eta sailkapena egin dute, horien glosategia osatzen hasi dira bertan egiten direnak modu sistematizatu eta erraz batean egin ahal izateko.

EMUNeko teknikaria: Amaia Rodriguez
Planaren koordinatzailea: Olatz Amonarriz

Albiste on bat dugu Oarsoaldea eskualdean: ELYTRA enpresa euskara planean hasi da.

Enpresa hau Lezon dago, eta langileen segurtasunerako materiala sortzen dute, besteak beste.

Enpresa txiki hau, gogotsu hasi da uztailean diagnostikoa egiten. Irail bukaerarako euskara planaren diseinua bukatuta izatea espero dute, epe luzerako eta epe motzerako helburuak jarrita.

Ongi etorri, ELYTRA, euskararen mundura!



Uztaileko Euskara Batzordean Euskara Planaren betetze maila kuantitatiboa eta kualitatiboa egin dute. Euskara batzordean aurrera egin den sentsazioa dago; hala ere, oraindik egiteko asko dagoela nabarmendu da.

Uztaileko nominarekin batera Euskara Planeko aldizkariaren azken zenbakia banatu da.

Lantegiko programa informatiko nagusia euskaratzeko zer urrats eman erabakitze, bilera egin behar zen Informatika buruarekin, baina lan pilaketa tarteko atzeratu egin da.

*EMUNeko teknikaria: **Xabier Apaolaza***
*Planaren koordinatzailea: **Natalia Jauregi***



Urte erdiko trebakuntzaren balorazio ona egin da. Urte bukaera arteko egutegia zehaztu dute eta dokumentu berriak itzuli dituzte.

*EMUNeko teknikaria: **Amaia Rodriguez***
*Planaren koordinatzailea: **Pilar Otegui***



Euskarazko Kuxkuxean aldizkariaren 6. zenbakia prestatzen dabilta. Aldizkaria urtean hirutan argitaratzen dute eta bertan, besteak beste, era honetako kontuak agertzen dira: lankideei egindako elkarrizketak, proiektuen laburpenak, euskara-planaren inguruko gorabeherak, sasoiko kultur agenda, prentsa "larrosa", erreportaje laburrak...

Aldizkarian bertan, euskara gutxi dakitenei laguntzeko asmoz, hiztegitxo bat ere sartzen dute, baita euskaraz ikasteko esaldi eta esamolde errazak ere.

Kuxkuxeanek oso harrera ona izan du euskaldunen zein gutxi dakitenen artean, batez ere, modu erraz eta dibertigarrian egiten saiatu direlako (eta uste dute lortu dutela).



*ELHUYAREko teknikaria: **Maddi Etxebarria eta Ainara Ibañez***
*Planaren koordinatzailea: **Nerea Ganboa***

Oarsoaldeko euskara batzordea

OLAkariaren aurreko zenbakietan Eusko Jaurlaritzarekin izandako harremanen inguruan jardun izan gara.

Hark martxan jarritako Lanhitz programaren berri emango zela ere aipatu zen, baina oraindik ez dago Jaurlaritzaren aldetik horren inguruko berririk.

Oarsoaldeko Euskara Batzordean, ordea, lanean jarraitzen dute, eta Oiartzungo, Lezoko eta Pasaiaiko Udaletako euskara teknikariak OLA plana berrikusten ari dira. Aurreko zenbakian enpresen inguruko azterketa bat egiten ari zirela aipatu zen, eta hortik ateratako ondorioak proposamena lantzeko erabiliko dira.

OLA plana martxan jarri zenetik urte batzuk pasa diren honetan, aldaketa beharrik ba ote duen aztertzen ari dira: egitura, koordinazioa, lanak, enpresetan sustapena...

2008rako OLA planak berrikuntzak ekarriko ditu, eta seguru denak hoberako izango direla!